*LABen anitzak gara. Euskal Herriko langile guztien sindikatua izateko lanean ari gara, afiliazioak eta militantziak ematen digun autonomiarekin. Nortasun propioa dugu. Ez duzu LABen diskurtso hutsalik aurkituko, sindikatu independentista, feminista, ekosozialista eta euskalduna da gurea; ez dugu sindikalismo otzanik egiten eta ez dugu lehentasun korporatiborik, kontrabotea praktikatzen duen klase sindikatua gara. LAB langileon defentsa kolektiborako tresna da. Egiteko beste modu bat dugu, gure borrokek helburu zehatzak dituzte eta badakigu akordioetara iristen. Langileen iritzia kontuan hartu eta elkarlanean egiten dugu bidea.*

*Eguneroko arazoentzako irtenbideak ditugu, proposamenak, bidelaguntza, etengabe berritzen ari den egitasmo sindikal bat eta Euskal Herrirako programa sozioekonomiko propioa duena. Sindikatu eraldatzailea garelako, joko-arauak aldatu nahi ditugu lan munduan eta jendartean. Aitzindariak izan gara sindikalismo feminista aktibatzen eta sindikalismo antirrazistarantz urrats sendoak ematen ari gara. Kalitatezko zerbitzu publiko eta lan baldintzen defentsan erreferente gara, eskubide sozialen borrokan eragile eta lan mundua euskalduntzeko bultzada.*

***Haurreskolak Partzuergo Publikoan zurekin bagara:***

- *Jaiotze-tasaren jaitsieraren aurrean haurreskola publikoetako lanpostu guztiak mantendu eta blindatzeko.*
- *Haurreskoletan 2023ko irailaren 1etik aurrera doakoak izanik, zerbitzua indartu, lanpostu berriak sortu eta lanpostu zerrenda estrukturalean txertatzeko.*
- *Haurreskoletan zein eskola publikoetako kolektibo guztien lan baldintzak hobetzeko, lan hitzarmen guztiak berritu nahi ditugulako.*
- *Haurreskola zein eskola publikoetan klase ikuspegitik, langile publiko guztiak defendatzeko.*
- *Publikoa ardatz izan dadin haur hezkuntzako lehenengo zikloa barnebiltzeko eta, horretarako, Haurreskolak Partzuergo Publikoa Hezkuntza Sailean integratzeko.*
- *0-3 zikloa mantendu eta Haur Hezkuntzako etapa osoaren batasuna lortzeko, bi zikloen arteko koordinazioa suztatuz.*
- *Haurreskoletan gehiago inbertitu eta hobetze lanak egiteko, bereziki kanpo espazioetan.*

## *kontaktuak*

irakaskuntza.lab.eus

Tlf. 637474015
Tlf. 689686207
haurreskolak.ara@lab.eus
haurreskolakaraba@lab.eus

Tlf. 666771196
Tlf. 666770982
haurreskolak.biz@lab.eus
i.belarrinaga@la b.e

Tlf. 666775484
Tlf. 674094543
haurreskolak.gip@lab.eus
haurreskolak.gip1@lab.eus

FB: Lab Haurreskolak
irakaskuntza.lab.eus/haurreskolak-0-3/

LAB

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

# HAURRESKOLAK BAGARA *zurekin*

*Egiteko beste modu bat*



LAB

